



BAKTERIOEN GEHIEGIZKO UGARITZEA (LAKTULOSA) ZEHAZTEKO ARNASAN BOTATAKO HIDROGENOAREN TESTA EGITEKO ARAUAK

ZER DA PROBA HAU?

Heste meharrean heste-floraren ezohiko ugaritzea dagoen diagnostikatzen laguntzen duen proba bat da. Ohiko heste-florak mantenugai jakin batzuk xurgatzen laguntzen du, bai eta proteina zenbaiten sintesia errazten ere. Patologia honek prozesu horiek aldatzen ditu.

PROBA EGITEKO EGUNEAN

- Proba goizez egiten da, AUOko kanpoko kontsultetako eraikineko 4. solairuan.
- Baraurik egon behar duzu aurreko gauetik, gutxienez 10 orduz (ezin duzu solidorik hartu, ez eta likidorik ere, ura barne).
- Gehitutako dieta egin behar duzu, proba egin baino 24 ordu lehenago.
- Ez duzu erre behar.
- Proba egitera joan aurretik, ahoaren higieze zorrotza egin beharko duzu.

ZER DA PROBA HAU?

- Miaketa-gelan, determinazio basala egingo da, eta ahoko batetik egin beharko duzu putz.
- Ostein, probaz arduratzen diren erizaintzako langileek aztertzen ari garen substratua (laktulosa) emango dizute, uretan disolbaturik, gelan bertan hartzeko.
- Jarraian, itxarongelan eserita atsedean hartuko duzu eta, 30 minutuan behin, makinan ahokotik putz egingo duzu. Probaren iraupena 3 ordukoa da eta paziente guztiek osorik egin behar dute.

OHARTARAZPENAK

- Gogoan izan **proba ez dela egin behar aurreko 4 asteetan antibiotikorik** hartu baduzu.
- Gogoratu ez duzula proba egin behar kolonoskopia, enterorresonazia (4 aste lehenago) egiteko prestakuntza hartu baduzu, eta aurreko 7 egunetan ere ezingo duzula libragarririk edo prozesinetikorik (Zidine, Levogastrol ...) hartu.
- Haurdun bazaude edo bularra ematen baduzu, ezin duzu testa egin.

GURI JAKINARAZI BESTE HITZORDU BAT EMATEKO

Harremanetarako telefonoak: zalantzarik baldin baduzu, deitu telefono-zenbaki honetara: 945 007 592. Kontsultara joaterik ez baduzu edo hitzordua aldatu behar baduzu deitu 945 007500 telefono-zenbakira.